

OSATU BEHARREKO LANTALDEAK

KOMUNIKAZIOA

Kilometroak 2019ko komunikazio ildoan oinarritzat hartuta, komunikazio lantaldearen eginkizun nagusiak, komunikazio plan eraginkor bat garatu eta urtean zehar antolatzen diren ekintzei nahiz 2019ko urriaren 6an ospatuko den Kilometroak jai egunari ahalik eta oihartzun gehien ematea izango da. Besteak beste, honako azpibatzerdeak osatzea aurreikusten da:

- Irudigileak.
- Sare sozialak eta webgunea.
- Prentsa bulegoa.
- "Pegada" taldea.
- Diseinatzaileak.

IKUSKIZUNAK

Lantalde honen eginkizun nagusiak bi zutarritan banatzen dira, batetik, urtean zehar ekimenak antolatzea Kilometroak 2019aren baitako komunikazio ildoaren baitako helburuak eta balioak sustatuaz eta hauen garapenerako beharrezkoak diren kudeaketaz arduratzea eta bestetik, Kilometroak 2019ko jai eguneko egitaraua prestatzea eta honen baitako ekintzen antolaketa lanak burutzea.

EKONOMIA

Ekonomia lantaldearen helburua, antolatzen ditugun ekintzekin ahalik eta etekin ekonomiko handiena ateratzea da. Eginkizun nagusia berriz, Kilometroak antolatzeko beharrekota den lan administratiboa ahalik eta txukunen garatzea izango litzateke: gastuen eta diru sarreraren jarraipena, fakturak, kontabilitatea, Kilometroak jaiaren behar diren aseguratzen azterketa egin eta gauzatu, Kilometroak jai eguneko plangintza ekonomikoa prestatu eta gauzatu: diru-trukea, sarrerak, diru-bilketa eta kontaketa ... Lantalde honetan hainbat azpibatzerde barnebiltzen dira:

- Gure zozketa.
- Arropa salmenta.
- Tonbola.
- ..

OSASUNA

Osasun lantaldearen eginkizun nagusia, urtean zehar nahiz Kilometroak 2019ko jai egunean antolatzen diren ekintzetarako larrialdi plangintza egitea eta gauzatzea izango da baita plangintza horren beharrei erantzutea ere (botikinak prestatu, materiala bildu ...). Osasun zerbitzuekin harremanetan egotea ere ezinbestekoa izango da. Ikastolen elkarteko teknikari aditu baten laguntza izango du lantalde honek.

GIZA BALIABIDEAK

Lantalde honen eginkizun nagusia, Kilometroak 2019 antolatzen laguntzeko izena ematen duten boluntario sarearen kudeaketa eta jarraipen zehatz bat egitea izango da. Lantalde desberdinek dituzten beharren arabera, jendea lan batera edo bestera bideratzeaz gain, Kilometroak 2019ko jai egunean lan egingo duen boluntario sarearen osaketaz eta koordinazioaz arduratuko da.

JASANGARRITASUNA ETA GARBITASUNA

Jasangarritasun eta garbitasun lantaldearen helburu nagusia, Kilometroak bezalako makro jai batek sortzen duen lorratz ekologikoa ahalik eta gehien murriztea izango da. Burutu beharreko eginkizunen artean, aipagarrienak honakoak izango lirateke: urtean zehar antolatzen diren ekintzetan jasangarritasun irizpidea bermatzeko neurriak hartzea eta txukuntasunaz arduratzea, Kilometroak jai egunean birziklatze kanpaina aurrera ateratzea eta sortzen den zaborra biltzea, inguruak garbi mantentzea etab.

ZIRKUITUA

Kilometroak jai egunaren ibilbidearen diseinua egitea dagokio lan talde honi. Ikastolen Elkartean lan egiten duen teknikari aditu baten laguntza izango du lantalde honek ere bere eginkizuna modu eraginkorrean gauzatzen laguntzeko.

TRAFIKOA / SEGURTASUNA

Lantalde honen eginkizun nagusia, herrian emango diren sartu/iritsi eta irten/itzuli operazioak egiteko modurik egokienak antolatzea izango da, horretarako, trafiko plangintza bat garatuaz. Lantalde honek, Ikastolen Elkarteko gaian aditua den teknikari baten laguntza izango du.

ARROPA

Lantalde honen helburu nagusia, arroparen salmentaren bidez, ahalik eta etekin ekonomiko handiena lortzea da. Azpibatzerde desberdinez osatzen da:

- Erosketa taldea.
- Denda.
- Biltegia.
- Irteerak.

Ikastolen elkarteko arropa salmentako arduradunak parte hartuko du lantalde honetan.

MUNTAKETA

Muntaketa lantaldearen zeregin nagusia, Kilometroak 2019ko jai eguna gauzatu ahal izateko azpiegitura guztia prest edukitzea izango da, egin beharreko muntaketa lan guztiak eginez: oholtzak, karpak, mostradoreak, kableen azpi egiturak etab.

TXOSNAK

Kilometroak 2019ko jai egunean jan-edan zerbitzua ahalik eta egoki eta txukunen eskaintzea izango da lantalde honen eginkizun nagusia. Bestetik, baliteke urtean zehar ikuskizunen lantaldetik antolatzen diren ekintzetan lantalde honen parte hartzea beharrezkoa izatea. Jai egunari dagokionez, txosnen kudeaketaz gain, hainbat posturen antolaketaz eta kudeaketaz arduratuko da.

FEMINISMOA

Lantalde honetan, lehenik eta behin, Kilometroak 2019an sustatu nahi dugun jai ereduaren inguruko hausnarketa eta lanketari helduko zaio ikuspegi feminista batetik. Hausnarketa honetan ateratako ondorioak, herriko eragile feministekin kontrastatu, ekarpenak jaso eta Kilometroak 2019 antolakuntzan ikuspegi feminista txertatzeko beharrezkoak diren neurri, ekintza etab. garatzeko lanketari eutsiko dio.

PREBENTZIOA

Prebentzio lantaldearen helburu nagusia, alkoholaren kontsumo arduratsua sustatzeaz gain, gazte adingabeak edaten hasten direneko adina atzeratzea da. Helburu hauek lortze aldera, herriko komertzio, tabernari eta herriko eragileen konpromezua, partaidetza aktiboa eta sentsibilizazioa jorratzeaz arduratuko da. Kilometroak 2019ko jai egunean ere, hainbat prebentzio neurri martxan jarri eta hauek kudeatzeaz arduratuko da.

INKLUSIOA

Lantalde honen helburu nagusia, Kilometroak 2019an sustatu nahi dugun jai ereduaren inguruko hausnarketa bat egin eta ateratako ondorioetan oinarrituz "inklusibitatearen" ikuspegia txertatzea izango da. Herritar ororen gaitasunak oztopo ezberdinen gainetik jarriaz, kide guztien partaidetza sustatuko duen jai eredu bat ahalbidetzeko neurriak hartzea eta garatzea izango da lantalde honen oinarritzko eginkizuna, horretarako, antolaketari nahiz esku-hartzeari lotutako proposamen metodologiko ezberdinak landuaz eta proposatuaz.

ERRONKA

Kilometroak jai egunean ludikoa da baina parte hartzea maiz pasiboa izaten da. Gazteek Kilometroak jai eguneko beste aukera bat izateko, Kilometroak jai egun osoan zehar DBH 3 eta 4ko ikasleentzako jolas eta jokoak antolatzen dira. Hasiera batean Erronka ekimena Gipuzkoan martxan jarri bazen ere, gaur egun lurralde guztietako ikastolen jaietan antolatzen da. Azken urteetan badira urtean zehar gauzatzen diren beste hiru ekimen: Nazio topaketa, Mendimetroak eta Ziklometroak. Erronka lantaldearen eginkizun nagusia, ekimen eta ekintza hauen antolaketaz eta kudeaketaz arduratzea izango da.

PROTOKOLOA

Lantalde honen helburu nagusia, erakundeen artean Kilometroak 2019ko irudia modu egokian zabaltzea izango da eta horretarako erakundeekin izan beharreko harremanak bideratzea. Ikastolen Elkarteko gaietan aditua den teknikari batek parte hartuko du lan talde honetan.

IZEN EMATEAK

Lantaldeetan parte hartzeko izena eman behar da, horretarako bi aukera dituzue:

- **Ikastolako idazkaritza bulegora joaz.**

- **Ikastolako webguneko Kilometroak 2019 atalean eskuragarri dagoen galdetegiko datuak beteaz eta bidaliaz.**

Zalantzarik baduzue, Nerea Altxu, Kilometroak 2019ko koordinatzailearekin jar zaitezke harremanetan.

Harremanetan jartzeko: naltxu@zarauzkoikastola.net

Telefonoa: 688 677 847

Ikastolako liburutegian kokatu den Kilometroak 2019ko bulegoa joaz.